



## 28 KANALAREN 3. URTEURRENA

Duela hiru urte hasi zen emititzen eskualdeko telebista; laster LTD uhin bidez emititzen hasiko da »2



### TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

# hitza

**Ostirala**  
**2009-10-02**

VII.URTEA 1.791.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)



I. GARCIA

**XABIER ZEBERIO** MUSIKARIA

«Gustatzen zaiguna egiteko aritzen gara laukote bezala»

**TOLOSA** Alos Quartet taldearekin '10 tanta' diskoa kaleratu berri du tolosarrak; gaur Tolosako GKO galerian aurkeztuko dute, 20:00etan »



ESTI EZBIZA

**MAITE JIMENEZ** MAYTE DENDAKO JABEA

«Pixkanaka ikasten joan nintzen, jendeak nigan konfiantza izan zuelako»

**TOLOSA** Merkatari onenari saria emango diote gaur, 20:15ean udaletxeko batzar aretoan »

## Eskualdeko lau pilotari ariko dira Lau t'erdikoan

**TOLOSALDEA-LEITZALDEA** Bengoetxea, Saralegi, Olazabal eta Olaetxea txapelaren bila ariko dira »

# 2009

**BERTSOLARI  
TXAPELKETA NAGUSIA**

[www.txapelketanagusia.eu](http://www.txapelketanagusia.eu)



Urriak 3, larunbata 17:30ean

Gurutzeaga pilotalekua

**ZESTOA**

IÑAKI GURRUTXAGA JONE LUIS MIREN ARTETXE  
OHANA BARTRA LIXIE ALBERDI ODEI BARROSO

Laguntza:

**hitza**



## Ibarrako eta Tolosako Nesken Pilota Eskola, laster martxan

**Pilota** » Izena eman daiteke oraindik; urriaren 5ean ekingo diote pilota eskolari Ibarrako Belabietako kiroldegian.

### ERREDAKZIOA

Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak Ibarra eta Tolosako Nesken Pilota Eskola abiaraziko du, Pilota Aniztasuna KEErekin batera. 10-16 urte bitarteko neskei zuzenduriko eskaintza da honako hau, eta aurtengoa hirugarren ikasturtea izango da. Iaz 8 neska aritu ziren eta ikasturtearekin "gustura" egon zirela adierazi dute federazioak.

Izena emateko epea urriaren 8ra arte dago zabalik, Ikastetxean (eskuorria entregatuta) edo Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioan (943471463).

### Ikastaroaren datuak

Urriaren 5ean hasiko da pilota eskola; 17:10etik 18:45era bitarte izango dira astelehenera, Ibarrako Belabietako kiroldegiko pilotalekuan. Ekainean amaituko da ikasturtea eta ordaindu beharrekiko kuota 90 eurokoa izango da.

Informazio gehiagorako honako telefono zenbakia honetara dei daiteke: Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioa (943471463). Halaber, Emakumea pilotari proiektuaz zerbait gehiago jakin nahi duenak, berriz, eskura du <http://www.blogak.com/emakumeapilotari/blogean>.

## Bihar ezingo da Kale Nagusian aparkatu 21:00etatik aurrera

**Irura** » Jaietan Les Diables de Canvelles taldearen piroteknia kale ikuskizuna dela-eta hartu dute erabakia.

### ERREDAKZIOA

Bihar jaietan Les Diables de Canvelles taldeak pirotekniaz osatutako kale ikuskizuna eskainiko du, 22:30etik 24:00etara. Ikuskizunak autoetan eragin ditzakeen ezbeharrak ekiditeko 21:00etatik aurrera Kale Nagusian aparkatzea debekatuko dute. Agindua ez bada errespetatzen Udalak ez du bere gain hartuko autoetan gerta daitezkeen kalteen inongo ardurarik.

Bestalde, Kale Nagusia ere itxita egongo da.

# «Herritar guztiengana» iritsiko da laster 28 Kanala

## Komunikabideak

Gaur hiru urte beteko ditu eskualdeko telebistak, lehen emisioa 2006ko urriaren 2an egin baitzuten.

### I. TERRADILLOS - N. LATABURU

Duela hiru urte sartu zen 28 Kanala eskualdeko etxeetan, 2006ko urriaren 2an, hain zuzen. Orduetik eskualdean gertatzen denaren berri eman du eskualdeko telebistak. Herritar guztiengana iristea izan dute oztoporik handiena, eskualdeko orografia dela eta. Baina aurki emango diote irtenbidea, LTD bidez emititzen hasiko baitira.

Lehen irudiak emititu aurretik, ordea, lan handia egin zutela gogoratu du Jon Aldanondo zuzendaria. «Tolosaldea Garatzenen eskutik etorri zitzaion Goierri Telebistari Tolosaldean telebista bat sortzeko proposamena». Hau abiapuntutzat hartuz urtebete aritu ziren lanean proiektuari forma ematen. Goierri Telebistak hasiera batean zuen bitarteko eta lan modu bera aplikatzeko lanetan hasi zen, beraz.

### Pausoz pauso

Behin programazioa martxan jarrita, lanean jarraitu zuen eskualdeko telebistak. Hala, 2007an zehar, beste beste, Euskaltel zuntz bidezko emisioak hasi zituzten, Tokiko partaide berri bezala sartu zen, LTD lehiaketara, Tolosako Komunikabideak SL bezala aurkeztu zen. Halaber, hainbat hitzarmen ere sinatu dituzte Hamaikarekin, Katalunyako Xarxarekin, Comunicaliarekin,.... Horrekin guztiarekin «sareko programazioari bultzada handia» ematea lortu dute, izan ere kate ezberdinen artean saioak trukatzear gain, beste kateetako saioak erosteko aukera badute.

Azpiegituren aldetik ere izan dituzte hobekuntzak. Azken urte honetan, esaterako, Tolosako San Esteban auzoan dagoen egoitza handitu ahal izan dute eta ondorioz plato berria jarri dute. «Hainbat saio bertan grabatzen hasi gara eta funtzio gehiago emango dizkiogu; elkarriketa batzuk ere bertan egiten ditugu», argitu du Aldanondok. Nahasketak egiteko beste gela bat ere jarri dute, bilera gela batekin batera.

### Programazio berria

Denboraldi berriari begira ere hainbat aldaketekin dator 28 Kanala. Telebistak lantzen dituen

saioen artean, albisteak mantenduko dituzte eta kiroletako albiste berri ere ikusi ahaliko da non as-teburuko partiden berri emango duten.

Eskualdeari buruzko erreportaje eta elkarriketa saioek ere bere horretan jarraituko dute. Musika eta ETBri erositako saioak ere izango dira. 4 orduko blokeak osatzen dituzte eta errepikatuz egun osoko programazioa lortzen dute.

Esan bezala, Tokiko elkarteak gainerako kateekin saioen trukaketa egiten dute. «Modu honetan gure programazioa aberasteko aukera dugu; ez dira tokiko gaiak, erreportaje orokorrak izaten dira oro har, biztanle guztiarentzat interesgarriak izan daitezkeenak».

### Aurrera begira

Etorriz hurbilean duten erronka nagusia Aldanondok esan bezala LTDn uhin bidez emititzen hastea da: «Guretzat oso garrantzitsua izango da hau, eskualdeko etxe guztiengana iritsi ahalko baikara». Hau guztia, noski, «kalitateko programazioarekin egiten saiatuko gara herritarrei eskualdean gertatzen dena erakusteko».



Programazio berria abiarazi du 28 Kanalak; eskualdeko alkate guztiak elkarriketatuko dituzte; lehena Hernialdekoa izan da. N. LATABURU

# «Orain arte izan dugun gabezia beteko dugu LTD bidez emitituz»

**JON ALDANONDO** » 28 Kanaleko zuzendaria

**Tolosa** » «Herri guztiengana heltzeko helburua» beteko du laister 28 Kanalak, uhin bidez emititzen hasten direnean.

Goierri Telebistako zuzendariak hartu zuen Tolosaldeko telebista gidatzeko ardura duela hiru urte. Orduetik hainbat aldaketa izan dira eskualdeko telebistan, besteak beste, «lokala handitzea»; LTD bidez emititzea izango da «aurrera begira pausorik garrantzitsuenak».

### Hiru urte eman dituzu 28 Kanalean zuzendari bezala. Nolako baliantea egiten duzu?

Oso ona. Hasiera zaila izan zen eta emititzen hasi aurretik hilabete askoko lana egin behar izan genuen. Goierriatik bideratu genuen guztia, egun ere hainbatsaio eta bilera han egiten ditugu. Baina hastapenarekin gustura gaude eta aurrera egiteko gogoz.



### Tolosaldea zer nolako eskualde dela esango zenuke?

Tolosaldea oso bailara polita da telebistarako. Herri askok osatzen dute, eta ekitaldi ugari antolatzen dituzte, oso aberatsa da. Hori bai, nahiz eta herri asko izan dugun biztanle kopurua daukagu.

### LTDaren etorrera aipatu duzu.

Gure helburua herri guztiengana, herritar guztiengana iristea da. Orain arte hori ezin izan dugun bete, ingurunea izan da oztopo nagusia, seinale etxe guztiengana heltzeko. Horregatik garrantzitsua da LTDn, uhin bidez emititzen hastea, herritar guztiengana iristeko aukera izango dugulako, dugun gabezia edo hutsunea bete.

### Nolako harrera izan du telebista Tolosaldeko biztanleengan?

Gustura gaude. Jendeak ezagutzen gaitu, eta hori ona da. Tokiko telebista batean horrela izan behar du, horrek gertukotasuna adierazten baitu. Eskualdeko telebista bati aurpegiak jarri behar zaizkio, horrela lortzen baita gertuko telebista izatea, eta hori bultzatu nahi dugu aurrerantzean ere.

### Honen guztiaren atzetik lan handia dago.

Bai, jende gaztea ari gara lanean. Ilusio handiarekin egiten dugulan. Inplikazioa nabarmenduko nuke, hori funtsezkoa baita gure lanean.

**E Elkarrizketa**

**XABIER ZEBERIO** ▶ Musikaria

**Musika** » Hamar urte bete ditu Alos Quartet laukoteak eta disko berria argitaratu dute, '10 tanta' izenekoa; Xabier Zeberio tolosarra taldeko kideetako bat da.

**IMANOL GARCIA**

Xabier Zeberio (Tolosa, 1978) da Alos Quartet taldeko kideetako bat. Beste hiruk Francisco Herretero donostiarra, Lorena Nuñez gasteiztarra eta Pello Ramirez ordiziarrara dira. 10 urte bete dituzte taldeak eta *10 tanta* diskoa argitaratu berri dute eta aurkezpen saioekin dabil-tza. Atzo Bilbon izan ostean, gaur Donostian (Fnac, 17:30ean) eta Tolosan (GKO galeria, 20:00etan) izango dira.

**Zer egingo duzue Tolosako aurkezpenean?**

Ez da kontzertu bat izango, hiruzpalau abesti joko ditugu. Aurrerago egingo dugu kontzertu bat Tolosan.

**Nolatan aukeratu duzue horretarako GKO galeria?**

Kasualitatez. Espazio egokia iruditzen zitzaigun. Ez genuen nahi oraintxe kontzertu oso bat egin. Aurkezpen txiki bat egin nahi genuen Bilbon eta Donostian egingo den bezala. Ez genuen ikusten egokia prentsaurrekoa egitea, baina hiruzpalau abesti jo eta bideo-klipa ere aurkeztu. Pentsatzen ari ginela non egingo genuen, lekua gustatu zitzaigun, hitz egin genuen eta horrela suertatu da. Aurkezpena irekia izango da, ez da gonbidapenik behar.

**Hamargarren urteurrena duzue. Sortu zenean espero zenuten batera urte horiek egitea?**

Laukotea kasualitatez sortu zen. Ez zen izan gure artean pentsatutako gauza bat. Beste pertsona batek elkartu gintuen, Niko Etxartek, grabaketa bat egiteko. Hortik hasi ginen lanean, baina kasik nahi gabe: birak Dulce Pontesekin, Kepa Junkerarekin, hainbat grabaketa, lehenengo diskoa... Bat-batean konturatu gara hamar urte egin ditugula.

**Instrumentu klasikoak jotzen dituzue baina ez duzue zehazki musika klasiko egiten. Nola deskribatuko zenuke Alos Quarteten musika?**

Zaila da. Laukote batek egindako musika da, baina ez ikuspuntu klasiko batetik. Laukoterako musika klasiko beste bide batetik doa, Mozart edo Hayden-en musika joaz. Gu saiatzen gara laukotea erabiltzen beste musika mota bat egiteko, guri gustatzen zaiguna, gure erreferentziak kontuan hartuta. Diskoa entzunda ikusten da zer musika mota gustuko dugun. Lan asko egin dugu folk musikari, pop-arekin, world music-eko



Alos Quartet laukotea Leidorren '10 tanta' diskoa grabatzen. Xabier Zeberio eskuinean zutik dagoena da. HITZA

# «Gustatzen zaiguna egiteko erabiltzen dugu laukote formazioa»

hainbat jenderekin, musika klasiko ere ikusten da, antzinako musika... Osagai ezberdinekin egindako musika da.

**Abestiak zuek egin dituzue?**

Gehienak guk eginak dira. Badago Suediako talde baten bertsiotzat, *Johsefins Dopvals* abestiarena. Väsen izena du taldeak eta asko gustatzen zaigun taldea da. Aita Donostiak sortutako melodia bat badago guk moldatu duguna eta beste guztiak orijinalak dira. Horrek ere badauka puntu bat. Normalean beste konposatzaileek idatzitako musika egiten dute laukoteek. Saltoa ematea interesgarria iruditzen zitzaigun: gure moduko musika sortzea eta guk jotzea.

**Zuk zeuk ere konposatu duzu?**

Bakoitzak bere konposizioak jartzen ditu eta kasu honetan diskoak enfokatzeko modua berezia izan da. Normalean laukoteko musika oso idatzia eta itxia izaten da. Partitura ematen dizute eta hori jotzen duzu. Ez da beste musika estilotan bezala talde lanak garrantzia duela eta konponketak eta apartazioak sortu ahal egiten direla. Mundu klasikoan eta bereziki laukoteetan horrek ez du existitzen. Kasu honetan askatasun handia izan dugu lauok planteatu ditugun obrak nahiko irekiak zirelako. Oinarri bat, melodia eta zati bat moldatuta

eta hortik aurrera nahiko inprobisazio dago diskoan. Denak elkarrekin egon gara Leidorren eta horrek freskotasan bat ematen dio, bakoitzak bere ezaugarri txikiak jartzen dituelako.

**Grabaketa berezia izan da, beraz.**

Kontzertu bat bezala izan da, entzunlegorik gabe, baina abestiak jo ditugu goitik behera denok elkarrekin. Agian hiru aldiz jotzen genuen abesti bat eta horietatik bat hartzen genuen. Ez dugu bakoitzak banaka grabatu.

**Zergatik aukeratu zenuten Leidor aretoa?**

Ez geniek inon grabatu. Dudan ginen. Estudio batean sartzeko gogo handirik ez genuen. Elkarrekin jo nahi genuen akustika oneko leku batean. Askotan estudioak oso lehorrak dira eta ez dira oso atseginak jotzeko. Leidorreko au-

**Denak elkarrekin egon gara Leidorren jotzen eta horrek freskotasan bat ematen dio diskoari**

keru suertatu zitzaigun, Tolosako Udalekoak oso ondo portatu ziren eta oso gustura ibili gara. Lau egunetan grabatu genuen eta gero Mikel Fernandez teknikariak kolaboratzaileen lana sartu du.

**Kolaboratzaileen artean aipatzen da Waldemar Bastos.**

Agian hemen ez da hain ezaguna, baina Afrikan erreferente bat da, bost-hamar abeslari ospetsuena-takoa eta Angolako abeslari garrantzituena. Egia esan sekulako zorrea izan dugu, kolaboratzaile guztiak, baina honekin bereziki, horrelako abeslari garrantzitsua Donostiara etortzea grabatzera. Sekulako esperientzia polita zan zen.

**Zer iruditzen zitzaien kolaborazioa egiten duen abestia?**

Izugarri gustatu zitzaien. Abestia ere nahiko ondo zihoakion, bere ahotsak kutsu latinoak baitu. Bidali genion eta egia esan ezustekoa izan zen. Berak esaten zuen hain ezaguna egiten zitzaiola kantua pentsatzen zuela bere umetako abesti bat zela. «Abesti hau nik entzun dut noizbait», esan zuen. Etorri zen estudioa eta lehenengoan grabatu zuen goitik behera, eta txundituta gelditu ginen.

**Beste kolaboratzaile atzerritarra Leonardo Amuedo izan da.**

Leidorren grabatu ondoren artxi-boak bidali genizkion internetez eta berak grabatu zuen gitarra etxean eta internetez bidali zuen. *Ezpatadantza* abestian parte hartu du. Guretzako erritmo oso ezaguna da, baina berak ez zuen behin

ere entzun. Pentsatu genuen partitura bidaltzea, baina azkenean grabazioa bakarrik bidali genion eta ea berak zer egiten zuen. Ba bidali zigun gauza bat guk inoiz ez genuena pentsatuko egitea eta izugarri polita dena.

**Maila handiko kolaboratzaileak izateagatik gertatzen dira horrelakoak.**

Askotan kolaboratzen duenari askatasuna eman behar diozu. Zuk nahi duzuna egiteko, zuk zeuk egi-

**Asmoa da entzule bakoitzak bere modura zerbait sentitzea musika horrekin**

ten duzu. Beraiek horrelako musikari handiak izanik... Askatasuna ematen badiozu gero emaitza are interesgarriagoa da.

**'10 tanta' izena jarri diozue diskoari. Zerbait gertatzen da gero eta tantarena?**

Ematen du zenbakiarena bilatu egin dugula, baina dena kasualitate izan da. Grabatzen ari ginela, Lorenak komentatu zuen hamar urte betetzen genituela. Ez ginen gogoratzen horretaz. Ez zen aurretik pentsatutako kontua izan. Eta tantarena gustatu egin zitzaigun: hamar tanta, hamar kantu, hamar zertzelada, hamar atmosfera...

**Tantekin metafora eginez abestiak entzuleari barruraino bustitzea nahi duzue. Barrura begirako musika dela esan daiteke?**

Tanta horiek xirimiarenak, eurijasa batenak, olio tanta batenak... izan daitezke, bakoitza bere ezaugarriekin. Asmoa da entzule bakoitzak bere modura zerbait sentitzea musika horrekin.

## Aiz-Orratz eta Kabi-Alai elkarteek antolatuta mendi irteera

**Aisia** » Elkarteek 75. urteurrena ospatzeko ekitaldietan, Belabieta eta Uzturrera joango dira etzi.

### SINADURA

Aiz-Orratz eta Kabi-Alai elkarteek 75 urte bete dituzte, eta hau ospatzeko hainbat ekitaldi ari dira burutzen. Igande honetan, esaterako, goizpasa joango dira, mendi ibilaldi bat egitera. Belabieta eta Uzturretik barrera egingo dute txangoa, eta ondoren, gosaltzeko parada hartuko dute.

Goizeko bederatzietan elkartuko dira Zerkausion eta itzuleran, hamabiak aldera gosaldia egingo dute Andre Maria kalean, Kabi-Alai elkartearen ondoan. Antolatuzaileek, beste elkarteetako kideei ere dei egiten diete ekitaldi honetan parte hartzeko eta urteurrena elkarrekin ospatzeko. Bestalde, ekitaldian parte hartu nahi dutenek, komeni da alde aurretik izena ematea, hamaiketakoan zenbat lagun bilduko diren zenbatzeko gutxi gorabehera.

## Hasiera mailako argazkigintza ikastaroa izango da ikasturte honetan ere

### ERREDAKZIOA

Udalak antolatutako kultur ikastaroen artean, hasiera mailako argazkigintzako izango da. Astelehena eta ostegunetan izango dira saioak, 18:30etik 21:30era, eta Iñigo Royo izango da irakaslea.

Hilaren 15ean hasiko dira eskolak, eta otsaila bukaeran amaitu, denera 100 ordu izango direlarik. Oraindik izena emateko epea zabalik dago. Tolosaldekoentzat, prezioa 207 eurotako da, eta gainontzekoentzat, 311.

## E Elkarrizketa

**Ekonomia** » 35 urte igaro dira Maite Jimenezek bere saltokia ireki zuenetik; orain bere ibilbidea eta lana saritu dute Alde Zaharra Dendak elkarteak kideek.

### ESTIEZEIZA

Alde Zaharra Dendak elkarteak hirugarren aldiz, Merkatari onenaren saria emango du gaur. Oraingo honetan, Maite Jimenez, Mayte perfumeria eta estetika zentruko jabea izango da saritua, hainbat eta hainbat urtetan egindako lanagatik. Gaur 20:15ean hasiko da ekitaldia eta udaletxeko batzar aretoan izango da.

**Duela 35 urte ireki zenuen zure denda.**

Lehendabizi Aparizion aritu nintzen lanean, bederatzietan. Gero drogeria txiki bat jarri nuen eta hiru-lau urte neramatzala, ohartu nintzen, horrekin ezin nuela jarraitu. Denda handiak, supermerkatuak eta abar zeuden prezio merkeagoak eskainiz, eta zaila zen hauei aurka egitea. Ondorioz, aldazte erabaki nuen, eta kosmetika munduan ere sartu nintzen.

**Garai horietan, zaila izan al zen bide horretatik jotzea?**

Alde horretatik, eskerrak eman behar dizkiozt jendeari, pazientzia izan baitzuen. Ikastaroak egiten hasi nintzen, eta jendeak konfiantza zuelako nigan, pixkanaka ikasten joan nintzen.

**Gazterik ireki zenuen negozioa.**

Bai, 24 urte nituela. Baina horrek ez zidan ikararik ematen. Gaueetan gauzak garbi ikusten nituen eta aurrerajartzea erabaki nuen.

**Zer moduz joan dira urte hauek?**

Lan asko egin behar izan dut, eta ordu asko sartu. Oporraldirik gabeko urte asko izan ditut. Denda bat jartzean lan asko egin behar da. Orain gainera, gehiago, lehia handiagoa baita. Zerbaitez berezia eskaini beharra daukazu.

**Garaietara egokitzen joan behar du saltokiak ere.**

Noski baietz. Lehendabizi, pentsatzen duzu gauza bakarrarekin nahikoa izango dela, baina gerora,



E ZEIZA

# «Jendeak konfiantza zuelako nigan, pixkanaka ikasten joan nintzen»

beste batzuk gehitzen joaten zara. Jendearen arreta erakarri beharra daukazu, eta erakusleihoak ongi zaindu behar dituzu, eta jendea ongi artatu. Azken batean, saltoki txikiak horretan bereizten gara, aholkuak emateko garaian, eta bezeroarekiko harremanean.

**Jendeak gertukotasun hori baloratzen al du?**

Nik uste dut baietz. Hala ere, gauzak probatzea gustatzen zaigu eta hori utzi egin behar da. Bezero batzuk, hiru hilabete behin etortzen dira, eta itzultzen direnean, izugarriko poza hartzen dut. Jendeari aukeratzeko utzi behar zaio, askatasunez. Bakoitzak nahi duenean etorri behar du.

**Jendearekiko gertutasun hori, gustuko al duzu?**

Bai, izugarri. Saltoki handiak, niretzat hotzak dira. Jende gaztea horretara ohituta dago, baina une batzuetan, aholkuak ematea nahi dute, eta horretara, gugana etortzen dira.

**Tolosan merkatariak indar handia du.**

Tolosan, eta oro har, Tolosaldean, hemen, erdigunean erosteko ohitura handia dago. Inguruko hezirik jende asko hurbiltzen da hona erostera, eta eskerrak hauei ere.

**Pazientzia asko behar al da jende aurrean egunero egoteko?**

Gustatuz gero, batere ez. Nik ez dut behar, gustatu egiten baitzait.

**35 urte hauetan gauzak asko aldatuko ziren.**

Bai, dena aldatu da. Lehen jendea etortzen zen erostera, denbora gutxi beharko zuen horretarako, eta bazekien zer nahi zuten. Beharrengatik etortzen zen. Orain berri, beharrik ez dago, kapritxo baizik. Jendea badago, zapatak erosteko ez duena, baina gure tratamenduak egiteko bai.

**Hemen, jendeak asko begiratzen al dio kanpoko itxurari?**

Bai, asko. Gauzak asko aldatu dira, eta aldatuko dira. Gazteek jakingo balute, garaiz hasita azala zaindaturik, gerora hobeto izango dutela, ohiturak aldatuko lituzkete. Uste dute ez dutela behar, baina ez da

horrela, oso garrantzitsua baita. Ez dago asko gastatu beharrik, baina ohitura hartu beharra dago, eta ahal denean zaindu. Hori da denei esaten dieguna.

**Jendeak noiz jotzen du zure aholkuak bila?**

Zerbaitez gaizki doakienean. Hauek eman eta emaitza onak lortzen badituzte, izugarri eskertzen dute. Dena den, askotan iruditzen zaie, kremak eman izanagatik ere, ez dutela hobekuntzarik izan. Baina, gustura erakutsiko nieke, nola egongo lirakeen hauek eman gabe.

**Espero al zenuen, sari hau ematea?**

Ez, ez nuen inondik ere espero. Jende asko dago hemen, urte asko daramatzana, eta ez nuen uste niretzat izango zenik saria. Hala ere, izugarriko ilusioa egiten dit.

**Zergatik uste duzu, zuri eman dizutela?**

Saltsa guztietan egotea gustatzen zaidalako. Ez zait gustatzen geldirik egotea, mugimendua gogoko dute.

## Hilberriak

### MIEL GOITIA ESNAOLA

Atzo hil zen, 67 urterekin, ezbeharrez.

Lore bat bezela joan zera udazkena heltzean.

Gure bihotzean izango zera bizi geran artean.

Beasainmendiko lagunak

BEASAIN  
2009ko  
urriaren 2a


Hil eta elizkizuna GAUR, OSTIRALA, arratsaldeko ZAZPIETAN, ANDRE MARI ZERURATUAREN parrokian elizan izango da.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA n jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZAk Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA





Iaz Tolosan egin zen Abiadura Handiko Trenaren aurkako manifestazioa. E. EZEIZA

## Abiadura Handiko Trenaren aurkako eguna Aiztondon

**Azpiegiturak** » Mendi martxa, bazkaria, erakusketa, hitzaldia, eztabaida, antzerkia eta musika izango dira.

### ERREDAKZIOA

Bihar, Aiztondon bailaran, Abiadura Handiko Trenaren aurkako eguna ospatuko dute. Horretarako egun osoarako ekintzak antolatu dituzte.

### 10:00etatik aurrera

10:00etan, Adunako Plazan elkartuko dira Mendi Martxan abiatzeko eta bukaera Joxe Agirre plazan izango da. Bertan elkartuko dira guztiak bazkaltzeko. Bazkaria norberak berea eraman beharko du. Bazkalostean, 16:00etan, AHT, Gazume eta erraustegiaren inguruko erakusketa egongo da. Ja-

rraian, hitzaldia eta eztabaidarako aukera egongo da gai hauen inguruan. 18:00etan berriz, *klawnstrofobia mendian* antzerkia antzetzuko dute. Egunari amaiera emateko, Imanol bakarlaría izango da. Bestalde, Goierriko manifestaziorako deia egin dute.

### Gaur egungo egoera

Tolosaldeko AHT Gelditu elkarnetik, eskualdeko egoera jakinarazi dute. Otsailan, Hernialde-Zizurkil zatiko oinarritzko proiektua iritsi zen baina aldatu egin dute.

Zizurkil-Urnieta zatiari dagokionean, denbora luze bi aukera izan dituzte eta lehenengoa aukeratu dute baina oraindik, azterketa informatiboa baino ez dute egin eta proiektua gauzatu nahian dabilta. Proiektua egiteko, zundaketak egin behar dituzte. Uztailea amaieran Zizurkil-en hasi ziren, Adun jarraituz. Azken horretan

ordea, lanak gelditzea lortu zuten, udalak baimenik ez zielako eman eta bestetik baimena eskatu behar zuten zundaketa lanetarako.

Azkenik, Legorreta-Tolosa zatian, proiektu konstruktiboa dago eta zaborte girako lur jabeek desjabetzeen gaineko gutuna, uztailea amaieran iritsi zitzaizkien.

### » AHT-REN AURKAKO EGUNA AIZTONDON

■ **10:00.** Mendi Martxa, Adunako plazatik abiatu eta Zizurkilgo Joxe Arregi Plazan amaituko da.

■ **Ondoren.** Bazkaria norberak eraman beharko du.

■ **16:00.** AHT, Gazume eta erraustegiaren inguruko erakusketa. Jarraian, hitzaldi-eztabaida egongo da.

■ **18:00.** *Klawnstrofobia mendian* antzerkia. Ondoren, Imanol bakarlaría.

## Galarraga apaiza Paraguaira eta Aizpurua Ruandatik Bidegoianera

**Bidegoian** » Urriaren 4an omenaldia egingo diote Galarraga herriko diote igande honetan, urriaren 4ean. Meza 11:00etan Bidaniako elizan izango da organojole eta guzti. Ondoren, bi haurrek aurrekoa dantzatzuko diote eta oroigarria emango zaio.

### ERREDAKZIOA

2006. urtean etorri zen Inazio Galarraga Frantziskotarra Goiazko Andra Maria eta Bidaniako San Bartolome elizetara apaiz lanak egitera.

### Paraguaira misiolari

Urriaren 7an ordea, Paraguaira Misiolari joango da. Lehen ere, 31 urte han eginak ditu. Hiru urte, es-

kualdean pasa ostean berriz joateko erabakia hartu du. Hori dela eta, herritarrek omenaldi beroa egingo diote igande honetan, urriaren 4ean. Meza 11:00etan Bidaniako elizan izango da organojole eta guzti. Ondoren, bi haurrek aurrekoa dantzatzuko diote eta oroigarria emango zaio.

### Aizpuru Errektore berria

Manuel Segundo Aizpuru Altuna, apaizak hartuko du, Inazio Galarraga Frantziskotarrek utzitako lekua. Aizpurua, 41 urtez Ruandan misiolari egona da. Bost urtez, apaizgaien irakasle ere izan zen eta 1960. urtean egin zen apaiz orde-natua.

## Laburrak

### Alde Zaharreko denden ekimenaren zozketa

**TOLOSA** » Alde Zaharreko dendek ekimen berri bat jarri dute abian. Dendari hauek babestutako ekimenari *Zenbat dakizu Tolosako Alde Zaharari* buruz deitu doite. Zozketa, urriaren 6an, asteartea, egingo dute, eguerdiko 13:15ean Tolosako Erretengibealeko bulegoan hain zuzen ere. Aipatu bulegoa, Plaza Zaharra 10 behean aurkitzen da. Elkarteko arduradunek zozketa egin ostean, sarituari telefonoz jakinaraziko diote bera izan dela zortetuna.

### 1959. urtean jaiotakoek bazkaria Kafe Frotonen

**TOLOSA** » Azaroaren 7an, 1959. urtean jaiotakoek tolosarrak elkartuko dira Kafe Fronton jatetxean. Bazkaria egingo dute, eta bertara joan nahi duenak, 55 euro sartu beharko ditu 2101 0067 28 0012 444782 kontu korronte zenbakian. Dirua sartzerakoan, bakoitzaren izena eta abizenak ematea beharrezkoa izango da. Informazio gehiago jakin nahiez gero 679 208 103 (Maritxu) edota 665 713 799 (Kristina) telefonora deituz eskuratzeko aukera izango da.

## Iragarki laburrak

### ALOKAIRUAN

■ **Kafetegi-Txokolategia.** Tolosan, erdigunean, martxan dagoen kafetegi-txokolategia alokatzen da. Arrazoiak: jubilaioa. Telefonoa: 669 82 70 96.

### SALGAI

■ **Etxebizitzak.** Tolosako Gorosabel kalean bi etxebizitza saltzen dira. Toki oso onean. Bata bi logelakoa, 180.000 eurotan. Bestea, berriz, 156.000 eurotan. Harremanetarako deitu 669 82 70 96.

■ **Garajea.** Alegian, San Joan kalean garajeko marra salgai. Prezioa: 18.000 euro. Deitu 669 82 70 96 telefono zenbakira.

### GALDUTAKOAK

■ **Jertse beltza eta eguzkitako betaurrekoak.** Joan zen igandean, irailak 27, jertse beltz bat eta eguzkitako betaurrekoak galdu ziren Urkizutik Erriorako bidean, Intxurbi baserriaren inguruan. Aurkitu dituenak dei dezala 695 749 825 telefono zenbakira. Aldez aurretik, mila esker.

### LANA

■ **Garbitzailea.** Ibarra Sendi Ekintza Elkarteko bazkideei zuzenduriko oharra: Elkarteko sagardotegirako garbitzailea behar da. Lanpostua eskuratzeko bete beharreko baldintzak ondorengoak

dira, elkarteko kide edo kideren baten bikotea izatea da. Lanpostu honetan interesaturik dagoenak, urriaren 11aren aurretik, juntakidetero batekin harremanetan jarri edo elkartearen buzoian bere izena eman behar du.

■ **Zaintzailea.** Tolosan arratsaldeetan hiru ume zaintzeko emakume eskaldun bat behar da. Harremanetarako telefono zenbakia: 630 98 43 00.

■ **Bigi Garbitasunak.** Alfonbrak, etxeak, bulegoak eta abar garbitzeko prest. Deitu inongo konpromisorik gabe. 638 94 46 04 (Gurutze) edo 695 70 82 71 (Belen).



# Gure lau pilotari sartuko dira kaiolan

**Lau t'erdiko Txapelketa** » Bi eskualdeetako lau pilotarik hartuko dute parte Txapelketan: Olazabal, Bengoetxea, Saralegi eta Olaetxea.

## ASIER IMAZ

Ikasturteko lehen txapelketa nagusian gure lau pilotari egongo dira: Bengoetxea VI.a, Olaetxea, Olazabal eta Saralegi.


Urriaren bigarren eta hirugarren asteburuetan jokatuko dituz-

te euren partidak, final hamaseirenetakoak hain zuzen ere. Guztira 20 pilotarik hartuko dute parte txapelketan eta hauetatik lau final-laurdenetan aurkitzen dira: Irujo, Titin III.a, Berasaluze VIII.a eta Olaizola II.a, azken txapeldua.

## «Eusten ez baldin badiot irabaztea ezinezkoa izango da»

**MIKEL OLAZABAL** » Aspeko pilotaria

**Areso** » Asier Olaizolaren aurka jokatu du Mikel Olazabal gazteak, hilaren 10ean Nafarroako Larraintzar herrian.



UR ALGERO

**Txapelketa hasteko aurkari nahiko gogorra tokatu zaizu.**

Oso gogorra esango nuke nik. Baina pentsatzen jarrita denak dira pilotari handiak, eta beste edonoren aurka izanda ere berdin-berdin izango nuen partida zaila. Ilusio handiarekin nago eta ea gutxienez gero ematen diodan.

**Irabaziz gero Xala edo Saralegi; ondoren Titin III.a...**

Lehendabizikoa irabazi baino lehen ez dut pentsatu nahi ondorengo balizko pilotariengan. Pausoz pauso joan behar dut eta lehendabiziko partidaren zentratu. Ahalik eta hobekien jokatzeko saiatuko naiz eta ahal bada irabazten. Gero geroakoak. Nahiko lan badut mementoz Olaizola I.arenkin.

**Bengoetxea VI.ari irabazia zara kaiolan. Ez da gutxi.**

Lau t'erdian partida onak jokatu izan ditut, baina baita txarrak ere.

Ikusi egin behar aurten nola moldatzen naizen. Txapelketan pilotak askoz gogorragoak izaten dira eta berak kolpe gehiago dauka. Ea nola defendatzen naizen. Lehendabizi behintzat ongi defenditu nahiko nuke. Hori lortzen baduk gero aukerak izan ditzaket tantoa amaitzeko baina lehenik berari eutsi beharra daukat, bestela partida irabaztea ezinezkoa izango da.

**Nola iritsi zara txapelketara?**  
Uda nahiko txarra izandu dut: eskuetatik gaizki ibili naiz eta hilabete egon nintzen geldirik, eskuetako arazoengatik. Orain ordea inongo lesiorik ez daukat eta lehen partida horretara ongi iristea espero dut.

## «Beroiz da garrantzitsuen»

**ONATZ BENGOTXEA** » Asegarceko pilotaria

**Leitza** » Bengoetxea VI.ak Beroizen aurka jokatu du hilaren 17an Iruñeko Labrit pilotalekuan. Irujoren adarrean dago leitza.

**Zein helbururekin hasten zara txapelketan?**

Beti bezala ahal den hobekien egiten saiatuko naiz. Lau t'erdiko Txapelketa oso gogorra izanen da: pilotari ikaragarriak daudelako eta edozeinek maila handia ematen duelako. Zaila izanen da aurrera joatea baina ahalik eta gorenen iristea izanen da helburua.

**Azken aldian izen handia hartzen ari da zure lehen aurkaria: Beroiz.**

Bai eta hori zerbaitengatik izanen da. 20 urterekin ikaragarriko

maila ematen ari da; jadanik pilotari handia da. Lau t'erdikoa nire ustez bere posturentzat oso egokia da. Hori guztiagatik oso partida gogorra izanen da.

**Lesio batetik atera berri zara. Erabat ahaztuta al daukazu?**

Bai. Txapelketa hau jokatzeko gogo handiarekin nago gainera. Gauzak ongi ateratzea espero dut eta gora igotzea. Asko entrenatzeko betarik ez dut izan baina egia esan nahiko kontentua nago. Partidako egunean ongi jokatzeko espero dut eta ea irabazteko gai naizen.

**Irujo dago zure adarren. Benetan hezur gogorra.**

Bai, dudarik gabe. Baina orain nik lehenbiziko partidaren bakarrik Bai eta hori zerbaitengatik izanen da. 20 urterekin ikaragarriko



GARI GARAIALDE/ARGAZKI PRESS

**Abel Barriola lesionaturik dagoenez, Leitza txapela ekartzeko aukera bakarra zu zara.**

Leitzako herriak, beste herriek bezala, esperantza edukiko du. Niretzako onena egiten saiatuko naiz eta ea zer ateratzen den.

## «Ezer ez da ezinezkoa»

**EKAITZ SARALEGI** » Asegarceko pilotaria

**Amezketan** » Saralegi Xalaren aurka jokatu du lehen kanporaketa. Urriaren 17an edo 18an izango da partida.

**Berriro ere hasteko Xala.**

Partida gogorra. Duela bi urte jokatu genuen eta irabazi egin zidan. Orain ondo preparatuta nago eta irabazten saiatu beharko dugu.

**Pilotarientzat uda gogorra izan ohi da. Nola aurkitzen zara orain?**

Asko jokatu dut baina gustura nago; nahiko ondo. Buruz burukoak beti izaten da zailagoa eta gogotsu nago. Txapelketa jokatzeko aukera eman digute eta ez da gutxi.

**Nola jokatzeko asmoa duzu beraren aurka?**

Gauza bat da pentsatzea eta bestea kantzaxan erakustea. Bera ondo ez dagoenean ez da ikusgarri horietakoa baina goi mailako pilotaria denez, erdia jokatu ere asko egiten du. Nire jokoa egiten saiatuko naiz, sakearekin asmatzen eta tantoa agudo bukatzen. Ezin baldin badut horiekin beste zerbait pentsatu beharko da baina sake-errematea bilatu behar dut.

**Zein adar tokatu zaizun begiratu al duzu?**

Beti begiratzen da, baina gainetik. Lehen partida irabaztearekin nahikoa izango dudala uste dut.

**Errematatzaile batentzat Titinen aurka jokatzeko polita izango da.**



MARTA SAN SEBASTIAN

Ikusgarria izango litzateke, niretzat dagoen partidarik hobereena. Ia idolo bat bezala izan da errematatzaileontzat, baina horiek hitz handiak dira. Hala ere hemen ez da ezer ezinezkoa eta saiatuko gara.

## «Aurten gazte asko gaude»

**MIKEL OLAETXEA** » Asegarceko pilotaria

**Lizartza** » Lehen aldiz hartuko du maila nagusian parte Olaetxeak. Retegi Biren aurka jokatu du hilaren 10ean Getxon.

**Bigarren Mailako Txapelketatik Lehen Mailakora. Jauzia naba-rituko da, ezta?**

Beste pilotari klase batzuk, pilota bera ere asko aldatzen da, ... Oro



A. IMAZ

har beste maila bat eta zerbait egitea oso zaila dago.

**Nola ikusten duzu Retegi Bi?**

Laz bi kanporaketa pasatu zituen: Gonzalez eta Del Reyren aurka-koak. Azkenean Abel Barriola handi baten aurka galdu zuen. Nire ustez pilotari oso-oso da eta neurri honetan bikain moldatzen dena. Partida oso zaila izango da, ia ezinezkoa ez esateagatik.

**Nola prestatu duzu txapelketa?**

Uda nahiko kargatua eduki dut baina azken bi asteetan lau t'erdikoari begira aritu gara entrenamenduetan. Ongi prestatu dudala uste dut. Maila Nagusian jokatzeko dudaren lehen urtea da eta ilusioarekin aurkitzen naiz.

**Ongi ikusten duzu, beraz, zure burua.**

Entrenamenduetatik partidara asko aldatzen da, baina nahiko gustura nabil. Gutxienez gerra

pixka bat ematea gustatuko litzaidake.

**Oro har txapelketari zein traza hartzen diozu?**

Oso gogorra izango da. Urtero bezala 4 edo 5 pilotari daude hor goian, maila ikaragarriarekin. Aurka egitea oso zaila izango da. Aurten ordea gazte asko sartu gera eta horrek bere grazia ematen dio txapelketari. Ezustekoak egongo direlakoan nago eta ea goiko horiekin ematen dizkiegun.

**Nork irabaziko du?**

Irujo eta Aimarren artean egongo dela iruditzen zait. Gero Pablito eta Titin zaharra ere hor daude, baina bat esan beharko banu Aimar esango nuke.





**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosa@irragarri.net.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoetaldia:** 687 410 022. anoetaldia@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarraldea:** 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L. ko kideak:**

**BERTAKO HEDABIDEAK** eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Deialdiak

■ **Tolosa.** Bisita gidatuak antolatu dituzte Topic-en (Euskal Herria plaza) urriaren 3ko eta 10eko asteburuetan. 12:00etatik 18:00etara bitarte izango dira bisitak. Izen-ematea ireki dute eta hainbat bide ireki dituzte horretarako: Tolosako Ekinbide Etxean (943 650414 telefonoan, 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara) edo [topic@cittolosa.com](mailto:topic@cittolosa.com) helbidean egin daiteke.

■ **Villabona.** Jubilatuen XXV. As- tea: elkarteko ibilaldietako argazki proiektzioa, eta kartajokoen finala.

### Jaiak

■ **Irura.** 19:00etan kalejira buruhandi, erraldoi eta Loatzo musika eskolako txistulariekin, ondoren txistor jatea Xare elkartearen, 22:30ean play back jaialdia eta 00:30ean La banda del Jefe Bigun taldearen rock and roll emanaldia.

■ **Ugarte.** Errosarioko Amaren jaien hasiera: 20:30ean kanpai-jotze eta suziarik, 21:00etan herri afaria, ondoren trikiritxa Itzel talde-arekin (atsedenaldian toka lehia-keta).

### Musika

■ **Tolosa.** R eta Stupenda Jones musika taldeen saioa Bonberenean 22:30ean.

### Erakusketak

■ **Hernialde.** Mikel Iriondok Kuban ateratako argazkiak ikusgai daude Hernialdeko Ostatuan. Urriaren bukaerara arte izango da ikusgai.

■ **Ibarra.** Gerrako umei buruzko erakusketa Benito Izagirre kultur etxean. Sobiet Batasuna, Erresuma Batua, Frantzia, Mexiko eta Belgikan haur euskaldunek bizitako bizipenak jaso dira. Idi Ezkerra fundazioaren eskutik. Hilabete bukaerara arte dago ikusgai.

■ **Tolosa.** Iñigo Altolagirrerren pintura erakusketa Aranburu Jauregian.

■ **Tolosa.** Biblioteca en guerra erakusketa dibulgatiboa Aranburu Jauregian.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Azpiroz, L. Amartzuzoa, 9. 943 675118  
■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7, 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunkizunik.

# Helduak ere dantzan jartzeko

**Kultura** » Tolosako Udaberri dantza taldeak helduentzat zuzenduriko ikastaroak antolatu ditu; izena eman daiteke jada.

### ERREDAKZIOA

Udaberri Dantzari Taldeak helduentzako dantza ikastaroak antolatuko ditu udazken honetarako. Ikastaro honen helburu nagusia «plazetan dantza egin ahal izateko fandango eta arin-arina ikastea da», dantza taldeak zehaztu duenez. Hala ere, baliteke ikasleek beste hainbat dantza ere ezagutzea, plaza nahiz erromerietan dantza egiteko, «joan den urtean bezala».

### Jarraipen taldea ere martxan

40 ikasle inguru aritu ziren lehenengo ikasturtean Usabago kiroldegian fandango eta arin-arina ikasten, eta euskal dantzaren zabal-kuntza honekin jarraitze aldera, aurtengoan Udaberri bi talde egingo ditu: asteartean joan den urtekoek jarraituko dute gauza berriak ikasten, eta ostegunetan, berriak, ikasle berriak hasiko dira.

Ikastaro hauetan parte hartzeko interesa dutenek izen-emate orriak Musika Eskolan, Usabal kiroldegian, Kultur Etxean, Aranburu liburategian eta hainbat komertzioetan izango dituzte eskuragarri. Orria entregatzeko eguna urriaren 9a izango da, arratsaldeko 18:00tik 20:00etara Udaberri dantzari taldearen lokalean (Sakramentinoen aspian). <http://fandango.udaberri.com> helbidean ere egin daiteke Ikastaroaren kostua iaz bezala hilabeteko 10 euro izando da.

Informazio gehiago nahi du-

nak <http://fandango.udaberri.com> edo [www.udaberri.com](http://www.udaberri.com) helbide-tarajo dezake.

### Ikasitako jendaurrean

Helduen taldeak ikastaroetan ikasitakoa jendaurrean eramateko aukera izan dute udan zehar.

Halaber, Iruran bihar bertan eskainiko duten emanaldia eta handik aste betera ere (urriaren 11n), beste emanaldi bat izango dute Arbizun

### Haurren ikastaroak, arrakastatsuagoak urtez urte

Umeen artean euskal dantza ikasteko zaletasuna zabalduz doala agerian geratzen da. Izan ere, aurtenean Udaberri antolatutako haurrentzako ikastaroak 160 ikasle inguru ditu. «Urtez urte ikasle kopurua gorantz doa, eta aurtenean zerranda zabala osatu dugun», diote dantza taldeko arduradunek.

### » HAINBAT DATU

- **Zer.** Helduentzat dantza ikastaroa: fandangoa eta arin-arina.
- **Noiz.** Asteartean joan den urtekoentzat eta ostegunetan ikasle berriak.
- **Izen-ematea non.** Musika Eskolan, Usabal kiroldegian, Kultur Etxean, Aranburu jauregian eta hainbat komertzioetan. Baita <http://fandango.udaberri.com> helbidean ere.
- **Izen-ematea noiz.** Urriaren 9an, 18:00etatik 20:00etara Udaberri dantzari taldearen lokalean.
- **Prezioa.** 10 euro.
- **Informazio gehiago.** <http://fandango.udaberri.com> edo [www.udaberri.com](http://www.udaberri.com) helbide elektronikoetan.



Oinarriko eta jarraipen ikastaroak antolatu dituzte helduentzat; besteak beste, arin-arina eta fandangoa ikasiko dute. HITZA

**mantangori** rekin

**Zinema etxean 4**

urriaren 10etik aurrera larunbatetan DVD bat

1. Lagundu arraina naiz
2. Heidi 3. berritua mendian
3. Bektzu eta Xangaduko misterioa
4. Olentzero eta Subilaren lapurketa
5. Urtemuga festa

6 DVD euskaraz

berria

HARPIDEDUNENTZAT, BILDUMA OSOAN 26 € ESKARARI EGITEKO 943 30 43 45. [harpidetza@berria.info](mailto:harpidetza@berria.info) edo [www.berria.info](http://www.berria.info)

Aukera ezazu. Bizi euskaraz **berria**

## A Agurrak

**agurrak** urtebetetzeak - urrezko ezteiak - ezkontzak jaioberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa